



KomunitateAGO

euskal eskola publikoa elkarrekin eraikitzen

Jardunaldia

Salburua gizarte etxea

Vitoria-Gasteiz

2025/2/7

Euskal Eskola Publikoan hezkuntza-komunitatearen parte-hartzean oinarritutako gobernantza-eredu baten aldeko apustua egiten dugu. Denon artean eraikitzen dugu nahi dugun eskola.

Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzeak **abantaila** asko ditu. Familien parte-hartzeak, esaterako, eragin zuzena dauka seme-alaben hezkuntza-prozesuan. Baina hainbat erronka ditu familia-eskola erlazioak, eta **konpromisoa eta elkarren arteko konfiantza** ezinbestekoak dira.

Parte-hartze **maila desberdinak** daude ere, tutore-familia bileretatik hasi eta ikastetxeko proiektuak egiteko benetako prozesu parte-hartzaileak egitera arte. Noraino gaude prest?

Ikasleen **aniztasunari** erantzutea erronka den bezala, erronka da ere familia aniztasunari erantzutea. Zer egiten dugu normalean parte hartzen ez duten edo egoera ahulean dauden familien parte-hartzea bermatzeko?

Erronka guzti hauei erantzutea ezinbestekoa dugu **komunitate ahaldunduak** eraiki eta Euskal Eskola Publikoak bereak dituen **printzipioei** erantzuteko.

Bide horretan laguntzeko "KomunitateAGO. Euskal Eskola Publikoa elkarrekin eraikitzen" jardunaldia antolatu dugu.

Pasa den abenduan "Eskola-kontseilua ebaluatzeko eta hobetzeko tresna" izeneko dokumentua osatu genuen EHIGE eta Heizek, gure eskola eta institutuetako parte-hartze prozesuei buruzko hausnarketa sustatzea helburu zuen ekarpen xumea.

Hainbat konturi buruz gogoeta eginarazi nahi genuen dokumentu horrekin: hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzea eta bereziki egoera ahulean dauden kideena, espazio ez-formalen garrantzia, hala nola lan-espazio abegikorak eta eraginkorrak sortzea.

Esperientzia horretatik abiatuta, hurrengo pausu bat proposatzen dizuegu: elkarrekin aurrez aurre hausnartzea hezkuntza-komunitatearen parte-hartzeak dituen zailtasunei eta indarguneei buruz. Behin hori eginda, ikastetxe parte-hartzaileagoak egiteko tresnak bilduko ditugu. Hauxe prestatu dugu:

EGITARAUA

9-9:30 Aurkezpena

- Iñigo Salaberria (Heize)
- Lurdes Imaz (EHIGE)
- Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña (Vitoria-Gasteizko Udaleko Kultura eta Hezkuntza zinegotzia)
- Begoña Pedrosa (Hezkuntza Sailburua)

9:30-10:45 Jordi Collet (Vic-eko unibertsitatea), hitzaldia*

10:45-11:30 Praktika onak

- "Nola parte hartu eskola-kontseiluetan" gidaren aurkezpena
- Lezo Herri Eskola
- Lardizabal Herri Eskola

11:30-12:00 Kafea

12:00-13:30 Lan-taldeak

13:30 Itxiera

*Jardunaldi guztia euskaraz izango da hitzaldi hau ezik

17:00 Aurkezpena

17:10 "Nola parte hartu eskola-kontseiluetan" gidaren aurkezpena

17:30 Jordi Collet (Vic-eko unibertsitatea), hitzaldia**

18:45 Itxiera

**Gurasoei zuzendutako saioa (gaztelaniaz)

NORI ZUZENDUA?

- Eskola-kontseiluetan parte hartzen duten pertsoneri (familia, zuzendaritza-talde, irakasle, ikasle, udaletxe...)
- Gaian interesa duen edonori.



Info+ ehige.eus / Izen-ematea: labur.eus/ofuus / Izena emateko azken eguna: otsailak 4, asteartea

Antolatzaileak:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Vitoria-Gasteiz
Hiri Hezitzailea
Ciudad Educadora

